



DEIALDIA

**LONDON
WINE FAIR
2017**

Data: 2017ko maiatzaren 22tik 24ra
Tokia: Olympia Exhibition Centre, Londres
Maiztasuna: Urtean behin
Norentzat: Ardogintza sektorea:
banatzaileak, edarien inportatzaileak,
xehekarien kanalean diharduten erosleak
eta HORECA kanalekoak.
Izen-emateko epea: 2016ko abenduaren 21
Parte-hartze prezioa:
Stand indibiduala: 1.764 € + % 21 BEZ
Stand partekatua: 875 € + % 21 BEZ
Azokaren wengunea:
www.londonwinefair.com

Informazio gehiago: María Fdez de Romarategui
internacional@camaradealava.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera
Parte hartzeko baldintzak
Parte-hartze eredia eta prezioa

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea
Eskainitako zerbitzuak
Izen-emate formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, LONDON WINE FAIR 2017 azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du.

Eusko Jaurlaritzak **105 m2**-ko lekua edukiko du 2017ko LONDON WINE FAIR azokan, parte hartu nahi duten Euskadiko ardogintzako enpresentzat. Azoka **Londresen** izango da, **2017ko maiatzaren 22tik 24ra**.

LONDON WINE FAIR 2017

azokaren izaera

Erakusketa eremua: 17.546 m²

2016ko erakusketariak: 643 enpresak 26 herrialdekoak

2016 bisitariak: 11.541 profesional 15 herrialdekoak

Web de la feria: www.londonwinefair.com

Merkatua

Erresuma Batua ardoaren merkatu nagusienetako bat da, nazioarteko mailan. *Wine and Spirits Trade Association* (WSTA) elkarteak 2015eko lehen seihilekoan jasotako datuen arabera, zenbaki absolutuetan, munduko seigarrena izaten jarraitzen du, ardoaren kontsumoari dagokionez, AEB, Frantzia, Italia, Alemania eta Txinaren atzetik. Gainera, merkatu britainiarra baliotsu bihurtzen ari da, non ardo merke gutxiago eta kalitate oneko ardo gehiago edaten baita.

Azpimarratzekoa da Erresuma Batua, Europar Batasuneko ardo-ekoizle txikienetako bat izan arren, mundu mailako erreferentzia eta merkatu nagusienetako bat bihurtu dela. Izan ere, munduko toki askotako mahastizainen arabera, merkatu erakargarria, joera markatzen duena da.

2015ean, 38.085 litro Errioxako ardo inportatu zituen Erresuma Batuek (+Arabako Errioxa), inportazioen balioa 129.348 € izanik. 2014. urtearekin alderatuz, 2015ean, % 1,6ko igoera izan du inportazioen balioak, eta etorkizunari dagokionez, 2016rako, industriak joerari eutsiko diola eta aurrera egiten jarraituko duela espero da. Kopuruei dagokienez, emaitza positiboak 2017tik aurrera soilik ikusiko dira.

Bestalde, aipatzekoa da, Erresuma Batuko supermerkatuetan saltzen diren ardo apardun guztiei dagokienez, hamarretatik bat Espainiakoa dela. Errioxako ardoak direla eta, 2015ean, 36 milioi litrotik gora esportatu ziren Erresuma Batura, Alemaniara baino ia-ia bi aldiz gehiago.

London Wine Fair

LONDON WINE FAIR azokak laburbildu egiten du Erresuma Batuek ardoaren merkataritzan egin duen bide luzea, izan ere, urtez urte bihurtzen ari da ekitaldi nagusia, Erresuma Batuan ardoarekin loturiko negozioak egiteko eta berrikuntzak eta esperientziak trukatzeko.

Ardo eta beste edari alkoholodun batzuen sektoreko urteroko azokaren 37. edizioa izango da aurtengoa, profesionalentzat bakarrik, batez ere, Erresuma Batukoentzat. Azokara joango den publikoari dagokionez, gehienak HORECA kanaleko profesionalak dira (% 30), edo bestela, inportatzaileak, banatzaileak eta agenteak (% 20) edo merkataritza libreak (% 10). Azpimarratu behar da eskualdeko ardogintzaren sektoreko prentsakoek ere bertaratuko direla.

LONDON WINE FAIR gehienbat merkatu britainiarrari zuzendua egon arren, Eskandinavia, Benelux eta antzeko merkatuetara irekitzeko aukera ere bada.

Parte hartzeko baldintzak

Joateko konpromisoa
Euskal Herrian egindako produktuak
Ebaluazio-inkesta

Egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen-enpresek** bakarrik parte har dezakete azoka honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin izango da ekintzan baja eman**. Ezinbesteko kasuetan soilik aztertuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.
- Muntaketa-egunean, enpresek derrigor egon behar dute bertan, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta standak azokaren inaugurazioa hasi baino lehen dekoratzen amaitzeko, behar besteko denboraz.

Azokak irauin bitartean:

- Ikusgai jarriko diren **produktuak Euskal Autonomia Erkidegoan** egindakoak izango dira. Ezingo da, inolaz ere, beste autonomia erkidegoetako produkturik aipatu edo aurkeztu.
- Azokak irauin bitartean standa egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta standaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio-inkesta** bete eta entregatu, antolatzaileen argibideei jarraikiz.

Parte-hartze

eredua eta prezioa

STAND INDIBIDUALA - Kuota = 1.746 € + %21 BEZ

STAND PARTEKATUA - Kuota = 875 € + %21 BEZ

Parte-hartze eredua

2017ko edizioan, Eusko Jaurlaritzak gutxi gorabehera 105 m2-ko stand bat antolatuko du, kalitate oneko ardoak (sor-markakoak), sor-markako txakolina eta/edo bestelako edari alkoholdunak ekoizten dituzten Euskal Elikadura Industriako enpresak hartzeko.

Merkatu britainiarra garrantzitsuenetako bat denez gure esportazioentzat, ekintzari bultzada handi bat ematea erabaki du Eusko Jaurlaritzak, parte hartzeko bi modu proposatuz:

- **Stand INDIBIDUALA** eredua
- **Stand PARTEKATUA**
(enpresa guztiak eremu komun batean)

Parte-hartzearen prezioa

LONDON WINE FAIR 2017 azokan parte hartzeko, honako prezio hauek ordaindu beharko dira, modalitate bakoitzeko:

- Stand indibiduala = **1.746€ + %21 BEZ**
- Stand partekatua = **875€ + %21 BEZ**

Parte-hartze kuota ordainketa bakarrean ordainduko da.

Faktura eskaera onartu ondoren igorriko da.

Eusko Jaurlaritzarekin

parte hartzea

zen-emate formularioa, behar bezala bete

Ordainketa-egiaztagiria

Izena emateko azken eguna: **2016ko abenduaren 21**

Parte hartzeko interesa baduzu, lekua mugatua denez, izena-emate formularioa bete eta ordainagiria ahalik eta azkarren bidaltzea gomendatzen dugu, María Fernández de Romarateguiri: **internacional@camaradealava.com**

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honakoa aurkeztu behar duzu:

1. Izen-emate formularioa bete

Informazio horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Izen emate formularioa



2. Izen-emate kuotaren ordainketa-egiaztagiria

Ordainagiria aría Fernández de Romarateguiri zuzenduta bidali emaillez: **internacional@camaradealava.com**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

KONTZERTUA: "Enpresaren izena + LONDON WINE FAIR 2017"

KONTU ZENBAKIA: ES24-2095-3150-2310-9095-1178 ARABAKO MERKATARITZA ETA INDUSTRIA GANBERAren izenean.

Izena emateko azken eguna: 2016ko abenduaren 21a arte.

Arabako Ganberako Finantza Sailak dagokion zenbatekoaren faktura bidaliko du, parte-hartzea egiaztatu ondoren.

Eusko Jaurlaritzarekin partehartzea

OHAR GARRANTZITSUA:

Izen-ematea formalki egintzat jotzeko, ESKATUTAKO AGIRI GUZTIAK bidali beharko dira, eta izena emateko kuota ordaintzeko eguna joko da izen-emate eguntzat, ondorio guztietarako.

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea, enpresen gutxieneko kopuru bat beharko baita parte hartzeko. Eusko Jaurlaritzak jakinaraziko du izen-ematea onartu den edo ez.

FAKTURA, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA JASO ONDOREN, PARTE HARTUKO EZ DUEN ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (% 100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan soilik aztertuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:

- Enpresa erakusketariak eskatutako lekua Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute alde aurretik ordaindutako kuota berreskuratzeko..
- Ezinbesteko kausa batengatik edo parte-hartzaileen kopurua nahikoa ez izategatik, Eusko Jaurlaritzak Azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea izango dute ordaindutako guztia (% 100) berreskuratzeko.

Bidaia eta ostatua

Bidaia eta ostatuko gastuak **ez dira barne ekintzan** parte hartzeko kuotan. Hala ere, Eusko Jaurlaritzak enpresen zerbitzura dago bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko, enpresa erakusketariak hala eskatuz gero; kasu horretan, fakturazioa enpresa bakoitzaren araberakoa izango da.

Eskeinitako zerbitzuak

Lekua kontratatzea
Dekorazioa
Salgaien garraioa
Kopak eta listu-ontziak

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak honako zerbitzu hauek emango ditu:

Lekua kontratatzea

Enpresa erakusketari bakoitzeko 10 m² inguruko banakako stand pertsonalizatuetan banatutako sustapen-eremu bat eta stand partekatuen eremu bat egongo da azokan.

Dekorazioa

Standen dekorazioa eta oinarrizko altzariak berdinak izango dira Euskal Herriko pabiloiko erakusketari guztientzat; honako hauek, alegia:

- **Stand indibiduala** (bereizketa-hormekin): mahai bat eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakusketariaren errotulua, konexio elektrikoa eta hozkailua duen biltegi bat.
- **Stand partekatua** (bereizketa-hormarik gabe): erakusmahaia eta enpresa erakusketariaren errotulua; bilerak egiteko mahaiak, hozkailuak dituen biltegia eta erabilera komuneko konexio elektrikoa.

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak salgaien bidalketa kolektiboa antolatuko du, garraiolariak adierazitako leku komunitik standeraino.

Garraiolariak fakturatuko du salgaiak bidaltzeko prezioa; kostu osoa enpresa erakusketariak ordainduko dute.

Dagokion unean adieraziko dira garraio-enpresa esleipendunaren datuak.

Enpresek bertan egon beharko dute adostutako orduan, salgaiak jasotzeko eta azokari hasiera eman baino lehen standaren dekorazioari azken ukitua emateko behar besteko denboraz

Kopak eta listu-ontziak

Zerbitzua barne da izena emateko kuotan.

Oharra: Standek ez dute harraskarik edukiko. Harraskak eremu komun batean jarriko dira. Standean harraska bat eduki nahi duten enpresek dagokion diru-kopurua ordaindu beharko diote standa muntatzeaz arduratuko den enpresari.

Oinarrizko altzarien, elementu elektrikoaren edo standen behar elektrikoaren edozein aldaketa, horien gehitzea edo ordezteak ekartzen duena, erakusketariak zuzenean kontratatatu eta ordainduko du; dekoratzaileak zuzenean fakturatuko du aldaketaren kostu erantsia.

Eskeinitako zerbitzuak

Azokako katalogo ofizialean sartzea
Komunikazio-kanpaina
Pabiloia mantentzeko lanak

Azokako katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko tramiteak egingo ditu azokara joaten diren enpresa erakusketari guztiak antolatzaileek egiten duten katalogo ofizialean ager daitezen, azokako erakusketari guztiak biltzen baititu (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira katalogoan).

Komunikazio-kanpaina

Eusko Jaurlaritzak komunikazio-kanpaina masiboa egingo du, izena eman duten gainerako herrialdeetako erosle bisitariei enpresa erakusketarien eta pabiloiaren kokapen zehatzaren berri emateko eta standak ikustera eta enpresak ezagutzera gonbidatzeko.

Horretaz gain, gure upategien presentzia ahalik eta errentagarriena izateko ahaleginak egingo dira, unean-unean azokak eskaintzen dituen sustapen-aukera guztien berri emanez (dastatze-gunea, prentsaurrekoa, eta abar).

Pabiloia mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa, elektrizitate, ur-horniketaren eta, oro har, pabiloia behar bezala zaintzeko zerbitzuez. Nolanahi ere, enpresa erakusketariak izango dira beren standak txukun-txukun mantentzearen arduradun.